



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5 UNITATE
DIDAKTIKOA

IZENA:

IKASLEAREN KOADERNOA 5

1 NESKAK ETA MUTILA, BERDINAK?

1 Hona hemen Buruk eta Sorginek etorkizunerako aukeratu ditzaketen hainbat helburu. Gure gizartean berriz, orokorrean, mutilek bakarrik horietako batzuk aukeratzen dituzte eta beste batzuk ez. Eta neskek berdin. Lotu Bururekin hemen gehienbat neskek aukeratzen dituztenak eta Sorginekin gehienbat mutilek aukeratzen dituztenak.



- Helburu ezberdinak dira? Zergatik? Beste era batera izan daiteke? Nola?

2

Esaldi hauek nesken eta mutilen aukeratzeko eskubidearekin lotura dute. Batzuk berdintasunaren aldekoak dira (semaforo berdeak). Beste batzuk berdintasunaren kontrakoak (semaforo gorriak). Inguratu esaldi bakoitzari dagokion semaforoa, gorria ala berdea.

“Neska eta mutil bakoitzak bere desioen arabera egin ditzake bere aukeraketak”.



“Mutilek panpinekin jolastea erabaki dezakete, horrela nahi izanez gero”.



“Neskek edozein kirola egitea erabaki dezakete, horrela nahi izanez gero”.



“Mutilek ezin dute arrosa koloreko arropa janztea erabaki nahiz eta gustukoa izan”.

“Neska guztiek eta mutil guztiek dute hartu dituzten erabakiak aldatzeko eskubidea”.



“Neska guztiek gauza bera desio dute. Mutil guztiek gauza bera nahi dute”.

2 NIK AHAL DUT, NIK EGIN DEZAKET

1 Edozein neskak eta edozein mutilek aukeratu ditzaketen hiru helburu daude hemen. Ondoan zazpi plan. Aukeratu eta idatzi zure ustez helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren planen zenbakiak.



Aurkikuntza zientifiko handi bat egin

planen zenbakiak:



Zoriontsu izan

planen zenbakiak:



Lagunekin etxebizitza berean bizi

planen zenbakiak:

- 1. neure buruarengan ziurtasuna
- 2. hizkuntzak
- 3. etxeko lanak
- 4. familiarentzako denbora
- 5. enplegua
- 6. unibertsitate ikasketak
- 7. lagunak

2 Idatzi zure bizitzan lortu nahi duzun helburu bat eta, azpiko laukietan, helburu hori lortzeko zure plangintza edo planen zerrenda.

NIRE HELBURUA	
NIRE HELBURUA LORTZEKO EGINGO DITUDAN PLANAK	